

Ebazpena: RP01/2023

Espedientea: E022/2020

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 15a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabakitzen dute:

ERABAKIA

Auzitegi Goreneko Hirugarren Salako 2. sekzioaren errekerimenduari buruzkoa, HEINSERBERG 2014 SLk 002/0001115/2023 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan eskatutako ondorioen zabalkundearen bideragarritasunari buruzko txostena egiteko. Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) jarri du errekurtsoa, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak 22/2020 gatazkan emandako 113/2022 Ebazpenaren aurka.

AURREKARIAK

1.- 2022ko martxoaren 25ean, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak 30/2020 gatazkari buruzko 12/2022 Ebazpena eman zuen. Horren xedea zen Alstom Renovables SL zergapekoak (gaur egun, General Electric Renovables España SL) 2014ko eta 2015eko ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerengatik (I+G+B) eskatutako itzulketa ordainarazteko eskumena zehaztea.

Ebazpen horrek zioen BFAk eskumena zuela 2014ko eta 2015eko ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerengatiko kenkariaren monetizazioaren zenbatekoa zergapekoaren zerga-proporzioan itzultzeko.

2023ko uztailaren 10ean, Auzitegi Gorenak BFAk jarritako 002/0000503/2022 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezestea ebatzi zuen (ECLI:ES:TS:2023:3307).

2.- 2022ko urriaren 20an, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak 22/2020 gatazkari buruzko 113/2022 Ebazpena eman zuen. Horren xedea zen HEINSENBERG 2014 SL zergapekoak 2018ko ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerengatik (I+G+B) eskatutako itzulketa ordainarazteko eskumena zehaztea.

Ebazpen horrek zioen BFAk eskumena zuela 2018ko ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerengatiko kenkariaren monetizazioaren zenbatekoa zergapekoaren zerga-proporzioan itzultzeko.

3.- BFAk 113/2022 Ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen Auzitegi Gorenean (002/0001115/2022).

4.- HEINSENBERG 2014 SLren 2023ko urriaren 17ko idazkiaren bidez, 002/0000503/2022 errekurtsoan emandako 933/2023 epaiaren ondorioak 002/0001115/2022 errekurtsoan zabaltzea eskatu zitzaion Auzitegi Gorenari, eta,

horren ondorioz, Arbitraje Batzorde honi epai horren bideragarritasunari buruzko txostena egiteko eskatu zitzaien.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Botere Judizialaren 6/85 Lege Organikoaren 17.1 artikulua ezartzen duenez, «Pertsona eta erakunde publiko eta pribatu guztiak beharturik daude, legeak ezarritako moduan, epaile eta auzitegiek prozesuan zehar eta ebatzitakoa exekutatzeko eskatutako laguntza ematera, Konstituzioan eta legeetan ezarritako salbuespenekin, legearen arabera dagozkien gastuak eta ordainsariak ordainduta».

2.- Ondorioak zabaltzeko prozedura berezia.

Ekonomia Itunaren 68.1 artikulua dioenez, «Hauek dira ekonomia-itun honetan ezarritako Arbitraje Batzordearen prozedura bereziak: prozedura laburtua, ondorioak zabaltzea eta betearazte-intzidentea». Ekonomia Itunaren 68.3 artikulua honako hau dio: «Baldin eta norbaitek auzi bat aurkezten badu ekonomia-itun honetan ezarritako Arbitraje Batzordean, eta auzi horren muinean dagoen kasuaren oinarria jada ebatzita badago beste auziren batean Arbitraje Batzordeak emandako ebazpen irmo batez, eskatu ahal izango du auzia ebatz dadila ebazpen irmo horren ondorioak zabalduz».

Ondorioak zabalduz ebatzi ahal izateko, Arbitraje Batzordeak 10 eguneko entzunaldi-izapidea eman behar die alde zuzeneko alderdiei.

3.- Arbitraje Batzordearen txostena.

BFaren eta Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren alegazioak entzun ez izanaren berezko erreserbekin, Arbitraje Batzorde honek uste du 12/2022 eta 133/2022 ebazpenen artean zio-berdintasuna dagoela I+G+Bren ondoriozko kenkariaren monetizazioari dagokionez; beraz, 22/2020 arbitraje-prozeduran zehar ondorioak zabaltzeko prozeduraren bidez ebazpena eskatu izan balitz, aurreikus daiteke onartu egingo zela.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Jakinaraztea ezen, Arbitraje Batzordeak ebatzi behar duen arbitraje-prozeduran ondorioak ez zabaltzeko berezko erreserbekin, eta 22/2020 gatazkan parte hartu zuten administrazioen alegazioak entzun ez izanaren erreserbekin, ulertzen dela Arbitraje Batzordearen 12/2022 eta 133/2022 ebazpenen artean oinarri bera dagoela I+G+Bren ondoriozko kenkarien monetizazioari dagokionez.

2.- Erabaki hau Auzitegi Gorenari jakinaraztea.